

KULTUR  
JARDUEREN  
AGENDA

martxoa  
10



ANTSOAINGO  
UDALA

BABESLEA:



Nafarroako  
Gobernua

2012 | ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA



10ko ARTE ETA KULTURA PROGRAMAZIOA

## 5, OSTIRALA

### ANTZERKIA

Cia. **XXL (Iruña)**

**"LISISTRATA"**



**LISISTRATA**  
**GAZTE ETA HELDUENTZAT**  
Lekua: ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
Ordua: 22:00  
Prezioa: 10,00 €  
Iraupena: 75 minutu  
Web orria:  
[www.myspace.com/maiteredinxl](http://www.myspace.com/maiteredinxl)

Zuzendaria: Ramón Vidal.

Antzezleak: Patxi Larrea, Sergio De Andrés, Maite Redín, Nerea Benito, Adriana Olmedo.

Hargatik...? Edo gauza bera dena: behar dugulako, gure eskubidea delako. Guk bakea eskatzen dugu behar dugulako, gure eskubidea delako, hargatik! Eta gerra zentzugabea bada, zergatik ez bilatu zentzugabeko irtenbideak? Horixe da Aristofanesez pentsatu zuena Lisistrata idatzi zuenean. Historiako komedia handienetako bat da hori.

Lisitratak Atenas eta Espartako emakumeak batu zituen, eta elkarrekin erabaki sendoa hartu zuten: Gerra egiten duenak ez du amodioa eginen!

Ikusiko duzue oso modu librean egokitu dugula testua, eta mozkoztzeraino edan dugula hainbat iturririk; izan ere, guk baino lehenago kontatu zuten haiek istorio hori. Gure istorioa Greziatik aldentu eta kabaretera hurbiltzen da. Zergatik? Hargatik...

## 6, LARUNBATA

### KLOWN-MIMOA (Euskaraz)

Cia **KORTAZAR (Araba)**

**"ZIRKU POBREA"**



**4 URTETIK GORAKOENTZAT**  
Lekua:  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
Ordua: 18:00  
Prezioa: 3,50 €  
Iraupena: 60 minutu

Zuzendaria: Miguel García de Cortázar.

Aktorea: Miguel García de Cortázar.

ZIRKU POBREA clown-mimo motako ikuskizuna da, eta aktore bakar batentzat prestatuta dago. Errepertorioko lana da, arina eta malgua. Gainera, garraitzeko erraza da eta gune eszenikoetara aise egokitzen da. Zirkuko honetako clown-gizonak hainbat zirkuko-diziplina egiten ditu eta gogora ekartzen du krisiak zigortu zuen antzinako zirkua, ez baitu onartzen hura desagertzea: musikaria da, malabarista, akrobata, magoa, dantzaria, lehoia... dena aldi berean eta ikusleen laguntzarekin. Adin guztietarako ikuskizuna da, komikoa eta dibertigarria, eta antzerki komikoa keinu-mugimenduaren bidez lantzen duen antzezia da aktorea, testurik gabe, oso modu fisikoan...

Izaki xume horiek bertan behera utzi ahal izanen dute basamortuaren aurrerabidea? Helburua lortzen lagunduko dute haurrek, ziur.

## 12, OSTIRALA

### UMOREZKO ANTZERKIA

**YLLANA (Madril)**

**"ZOO"**



**JENDE GUZTIARENZAT**  
Lekua:  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
Ordua: 22:00  
Prezioa: 6,00 €  
Iraupena: 70 minutu  
Web orria:  
[www.yllana.com](http://www.yllana.com)

## 13, LARUNBATA

### UMOREZKO ANTZERKIA

**YLLANA (Madril)**

**"ZOO"**



**JENDE GUZTIARENZAT**  
Lekua:  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
Ordua: 18:00  
Prezioa: 3,50 €  
Iraupena: 70 minutu  
Web orria:  
[www.yllana.com](http://www.yllana.com)

Zuzendaria: Yllana.

Antzezleak: César Maroto, Juan Francisco Dorado, Susana Cortés eta Rubén Hernández.

Jungla sakonenean, esploratzaile beldurgabe eta eroxka batzuk abentura zentzugabeenean ariko dira. Desagertzeko zorian dagoen animalia exotiko bat harrapatu nahi dute, hiri handi bateko zoorra eramateko.

Ikusle guztientzako ikuskizun bati ekin dio berriz ere Yllanak, oraingo honetan munduari buruz duen ikuspegi komiko pertsonala gizakiaren eta naturaren arteko gatazkari aplikatuta. Keinu bidezko antzerkian ikertzen jarraitzeko duen grinarri lotuta, taldeak ZOO lanaren bidez animaliak agertzeko eta natura basatia irudikatzen nahian sakontzen du. Izan ere, ideia horiek agertu izan dira jada Yllanaren beste ikuskizun batzuetan, nahiz eta beti elementu bakartuak izan diren.

ZOO izeneko lanean, inork ez du izanen barrearen atzaparretatik ihes egiteko aukerarik.

## 19, OSTIRALA

### MUSIKA

#### JORGE SÁNCHEZ & CLÁCHLON TRÍO (Kuba-Nafarroa)

#### “UN POCO DE AQUÍ & DE ALLÁ”



### IKUSLE GUZTIENTZAT

Lekua:

ANTSOAINGO ANTZOKIA

Ordua: 20,00

Prezioa: 6,00 €

Iraupena: 75 minutu

Web orria:

[www.jorgesancheztrova.com](http://www.jorgesancheztrova.com)

### Musikariak:

Klarineta: Almudena Ibáñez.

Akordeoa: Eunat Dorai.

Biolontxelo: Eva Niño.

Hamar urte joan dira dagoeneko Jorge Sánchez Nafarroara etorri zenetik, eta hori ospatu nahi du, kobla protagonista duen musika-proposamen baten bitartez. Son Montuno izeneko donutik Kubako kanta berrietaraino, bolero bat edo beste tartekatuta, Jorgek sentsibiltate eta bibrazio oneko ibilbide musikala eskaintzen digu bere kontzertuan.

Berarekin batera CLÁCHLON TRÍO arituko da, eta horrekin kolore berriak eman nahi dizkio bere erreperitorioari.

CLÁCHLON TRÍO taldeko kideek kasualitatez elkar ezagutu zuten 2008ko udan R. Valle Inclán egilearen obra bat muntatzeko lanetan. “Luces de Bohemia” zen lan hura, Ángel Sagüesek zuzendu zuena, eta 2008ko Max saietarako izendatu zuten errebelazio talde gisa.

Clarissa Castro.

Zer gertatuko litzateke haurren munduak bere koloreak galduko balitu?

Nolako eragina izanen luke horrek haien sormenean eta jolasetan?

Nolakoa haien izaeran eta berezko mugimenduan?

Eta, batez ere... Zer egin dezakegu oraintxe bertan gertatzen ari bada hori?

Berta izeneko haurrak jolasteko leku misterioitsu bat aurkitu du ganbaran. Kolorez betetako gela da hori, eta bere fantasia pizten du. Baina hango txokoetan beste mundu bat ezkutatzen da, eta bertako pertsonaiak jelskor daude koloreekin eta denak lapurtzen saiatuko dira!

Zorionez, jolaskide berezi bat ezagutuko du Bertak, eta elkarrekin saiatuko dira misterioari irtenbidea bilatzen...

## 26, OSTIRALA

### IPIUIN-KONTALARIA (Gaztelaniaz)

#### SERGIO DE ANDRÉS

#### “CUENTOS ANIMADOS”



### HAURRENTZAT SOILIK

Lekua: LIBURUTEGIA

Ordua: 17:30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat

18:15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

Sarrera Doan

## 20, LARUNBATA

### DANTZA

#### LARUMBE DANZA (Madril)

#### “BERTA EN EL DESVÁN”



### 6 URTETIK GORAKOENTZAT

Lekua: ANTSOAINGO ANTZOKIA

Ordua: 18,00

Prezioa: 3,50 €

Iraupena: 50 minutu

Web orria: [www.larumbedanza.com](http://www.larumbedanza.com)

Zuzendaria: Joaquín Abella.

Dantzariak: Sara Mogarra, Joaquín Abella,

### MENDI-PROIEKZIOA

#### “RODEANDO EL ACONCAGUA”



### IKUSLE GUZTIENTZAT

Lekua: ANTSOAINGO ANTZOKIA

Ordua: 20,00

Sarrera Doan

Iraupena: 100 minutu

Proiektzioa eman aurretik, Gazte Berriak patronatuko mendi atalak aurreko denboraldian egin zituen txangoei buruzko diapositibak erakutsiko dira.

Aconcagua 2007-2008. Falso polaco izeneko bidetik igota, guanacos bidetik baina, eta aitzindarien bide normaletik jaitsita.

Denali-Mckinley 2006. West Buttres-eko ertzari jarraituta.

## 26, OSTIRALA

### ZINEMA

#### “GAZTE ETA HELDUENTZAT”



#### JUVENIL-ADULTO

**Lekua:**  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
**Ordua:** 22,00  
**Prezioa:** 4,50 €  
**Iraupena:** 160 minutu

**Zuzendaria:** Quentin Tarantino.

**Aktore taldea:** Brad Pitt, D. Kruger, M. Yers, E. Roth, S. Levine, J. Dreyfus, D. Brühl.

Alemanek Frantzia okupatu bitartean, Shosanna Dreyfus emakumeak ikusi zuen nola Hans Landa izeneko koronel naziak bere familia hiltzen zuen. Shosannak alde egitea lortu eta Parisera ihes egin zuen. Han nortasun berria izan zuen zinema bateko jabe eta zuzendari gisa. Europako beste leku batean, Aldo Raine tenienteak soldadu judu talde bat antolatzen zuen helburu jakin batzuen aurka mendekua hartzeko. Raineren gizonak -etsaiek "The Bastards" (aluak) deitzen diete-, bat eginez dute Bridget Von Hammersmark aktore alemanarekin. Hori aliatuentzat lan egiten duen agente sekretua da, III. Reich-eko liderrak boteretik kenduko dituen misio batean ari dena. Shosanna mendekua hartzeko zain dago markesina baten azpian, eta patuak denak bilduko ditu hantxe bertan.

## 27, LARUNBATA

### ZINEMA

#### “ALVIN Y LAS ARDILLAS”



#### 5 URTETIK GORAKOENTZAT

**Lekua:**  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
**Ordua:** 18,00  
**Prezioa:** 3,50 €  
**Iraupena:** 90 minutu

**Zuzendaria:** Betty Thomas.

**Aktore taldea:** Jason Lee, David Cross.


Alvinek izugarri gozatsen jarraitzen du -gehiegi- musika-bandaren liderra izanda, eta berak kontzertu batean egindako bihurrikieren ondorioz ospitalean bukatu du Davek. Alvin eta bere anaien zoritzarreako, Davek rock-izarrak izateko ametsa ahantzaraziko die eta institutura itzularazi. Bertan neska talde bat ezagutuko dute, oso berezia: Chipettes neska taldea.

## 28, IGANDEA

### MUSIKA-KOMEDIA

#### ILUNA PRODUCCIONES (IRUÑA)

#### “EUSKADI TROPICAL”



#### GAZTE ETA HELDUENTZAT

**Lekua:**  
ANTSOAINGO  
ANTZOKIA  
**Ordua:** 20,00  
**Prezioa:** 6,00 €  
**Iraupena:** 120 minutu

**Zuzendaria:** Miguel Goikoetxandia.

**Antzezleak:** Ana Berrade, David Larrea, Oscar Orzaiz, Pedro Izura, Miguel Goikoetxandia, Nerea Mariezcurrena.

**Musikariak:**

Gitarra: Fermín Matilla.

Baxua: Fran Alvero.

Bateria: Alberto Huarte.

EUSKADI TROPICAL (euskal rock erradikalaren urteak)

Musikal honek garai hartako taldeen kantak biltzen ditu: BARRICADA, KORTATU, HERTZAINAK, LA PULLA RECORDS, TAHURES ZURDOS, POTATO....

Belaunaldi oso bateko musika.

Komedia honek zuzeneko musika-banda du, eta gure hurbileko historiako bilduma sentimentala egiten du.

Umore oinarri handia duen lana, dudarik gabe gogora oroitzapen asko ekarriko dizkiguna.

## SARREREN SALMENTA

### 012 TELEFONOAN

Sarrerak hartzen dira ikuskisun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago.

### INTERNETEN



[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)  
**VENTA ENTRADAS**

Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu zuzenean aretora pasa zaitez.

### ANTZOKIKO LEIHATILAN

Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago.